

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroako Gobernuak "Principe de Viana" aldizkariaren zenbaki berri bat argitaratu du

Ramón Amadeu Grau, Basiano pintorea edo Pablo Orduna apaiz-jesuitaren inguruko artikulu monografikoak agertzen dira bertan

Jueves, 06 de octubre de 2011

Nafarroako Gobernuak Principe de Viana aldizkariaren 252. zenbakia argitaratu du. Artearen atala Ramón Riberak egindako "Ramón Amadeu Grau irudigile katalanaren eskultura-talde bat" izeneko artikuluarekin irekitzen da, XVIII. mendeko eskultore katalan ezagun eta aztertuenetako bat. Artikulu horretan aztertzen da, San Joaquín, Santa Ana eta hodei gaineko Ume Ama Birjinaren eskultura-taldea, Palacio Decanal Tuterako Museoan kontserbatzen dena.

Atal horren barnean, halaber, Francisco Javier Zubiaur-en "Basianorengandik jasotako eraginen birpentsatzea" izeneko artikulu bat eta Eduardo Moralesek idatzitako bat topa daitezke: "Erakundeen ordezkaritza aitortza sozial eta profesionaleko bide gisa: Iruñeko arotz eta igeltseroen kasua". Lehenengoak, Basiano pintoreak -jatorria euskal pintura zuelarik- jasotako eraginei buruz orain arte eutsitako planteamenduen berraztertze bat eskaintzen du, bere maisu valentziarrengandik San Fernandoko Arte Ederretako Errege Akademian, eta Chicharrorengandik Erroman. Bigarrengoan aztertzen da, nola Iruñeko arotz eta igeltsero batzuk lortu zuten gizarte- eta profesional-mailan gora egitea Barrokoaren mendeetan, erreinuaren, katedralaren edo udalaren zerbitzura lan eginez.

Historiaren atalean "Monetaren zerga Nafarroako erreinuan (ca 1243-1355): fiskalitatea, demografia, diruaren historia" izeneko Juan Carrascoren artikulu bat jasotzen da. Atzerriko errege nafarrei zin arazten zaie txanponak egiteko beren eskubidea beren erreinura mugatuta gera zedin. Ordainetan, monetaren zerga ematen zaie, su edo etxe bakoitzari aplikatutako zerga zuzena. Pablo Ordunaren bigarren artikulu baten izenburua, "Antzinako Errejimenen zehar Nafarroako nobleziaren kanpora begirako sustapenari buruzko zirriborroa" da. Hirugarren artikuluak, berriz, Antonio Astorganoren, "Zangozako kanporatutako jesuita errebelde bat: : Francisco Javier Mariátegui, zapal dutako jesuita ohia" izenekoak da; pertsonaia horrek kendutako Konpainiaren ohorearen aldarrikapen ausarta egin zuen Campomanes, Godoy eta Kadizko Gorteen aurrean. Historiaren ataleko azken artikuluak "1808ko Nafarroako Konstituzioa deskribatzeko agiriari buruzkoa" izenekoak da, eta "Marketin politiko, instituzionaleko ahalegin goiztiar bat" izenburua duena.

Ondoren bibliografiari irekitako atala irekitzen da bi artikulu gehiagorekin. Lehenengoa, Francisco Javier Cabodevilla-rena da, eta

"Nafarroako Bibliografia. Nafarroako bibliografiari egindako eransketa berriak" izenburua du; 136 tituludun azterketa bat da, eta Nafarroako inprentaren historia osatzen dute; bigarren artikulua batek "San Francisco Javier-en jaiotzaren V. mendeurrena dela-eta argitaratutako bibliografia" du izena eta Xabier Añoveros-ek idatzitakoa da. San Francisco de Javier-ekin lotutako hainbat gai buruz argitaratutako monografia asko jasotzen dira bertan, bai horrekin, bai eta Javierren gaiei buruz idatzitako artikulua asko ere.